

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala****Bermeoko udal mugapean, Lamerako 2 zenbakiko kioskoaren aprobetxamendu pribatiborako emakida.**

2021eko urriaren 26ko Tokiko Gobernu Batzarreko akordio bidez, deialdia arautzen duten oinarrien onarpena egin da.

1. *Erakunde esleitzaila*
  - a) Erakundea: Bermeoko Udala.
  - b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Idazkaritza Saila.
  - c) Espediente-zenbakia: IDA\_ERA\_0209\_2021.
2. *Dokumentazioa eta informazioa lortzea*
  - a) Bulegoa: Idazkaritza Saila.
  - b) Helbidea: Irakaskintza kalea, 14-16.
  - c) Herria eta posta kodea: Bermeo, 48370.
  - d) Telefonoa: 946179105.
  - e) Webgunea: [www.bermeo.eus](http://www.bermeo.eus)
3. *Lizitazioaren xedea*
  - a) Mota: Jabari publikoko emakida.
  - b) Deskribapena: Bermeoko udal mugapean, Lamerako 2 zk.ko kioskoaren aprobetxamendu pribatiborako jabari publikoaren kontzesioa.
  - c) Iraupena: Herri-erabilerarako emakidaren iraupena 15 urtekoa izango da, emakida formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita, eta ezin izango da luzatu.
4. *Izapideak eta prozedura*
  - a) Tramitazioa: Arrunta.
  - b) Prozedura: Irekia.
  - c) Modua: Enkantea.
  - d) Lizitaziorako gutxienerako tasa: 3.640,00 euro/urteko.
5. *Bermeak*
  - a) Behin-behineko bermea: Ez da eskatzen.
  - b) Behin betiko bermea: 366,99 euro (okupatzen den jabari publikoaren balioaren %3a).
6. *Eskaintzak aurkeztea*
  - a) Aurkezteko azken eguna: 20 egun baliodun, dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.
  - b) Aurkeztu beharreko agiriak: lizitatzailleek bi gutun-azal edo artxibo elektronikotan aurkeztuko dituzte beren proposamenak, Administrazio Klausula Berezien Agiriko 10. klausulan adierazitako moduan eta edukiarekin.
  - c) Aurkezteko modua:
    - BERHAZ herritarrentzako arreta-bulegoan (Ertzilla kalea, 6-8, 48370, Bermeo).
    - Bermeoko kontratugilearen profilean: <https://bermeo.eus/1470.html>



— Legez aurreikusitako gainerako moduetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

7. *Eskaintzak irekitzea*

- a) Erakundea: Kontratazio Mahaia.
- b) Eguna: Bermeoko Udalaren web orrian eta iragarki-taulan adierazitako eguna eta ordua.

Bermeon, 2021eko urriaren 27an. — Alkatea, Aritz Abaroa Cantuariense